











aRarteko



Herriaren Defendatzailea *Defensoría del Pueblo*

13^{zk.}

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena. 2010eko laburpena



“Ordena p
eta gizar
oinar
gizabar
duint



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	05
DATU OROKORRAK	06
PERTSONEN ESKUBIDEAK	08
JARDUERAK	16
EZHOIZKO TXOSTENAK	22
GOMENDIO OROKORRAK	24
HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA	30
BESTELAKO JARDUERAK:	32
_ ARGITALPENAK	32
_ JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK	33
_ BISITAK	37
INFORMAZIO INTERESGARRIA	38





*Gizaki guztiak libre eta eskubide
berdin jaiatzen dira*

*Todos los seres humanos
nacen libres e iguales.*



Iñigo Lamarca - Arartekoa

AURKEZPENA

Hemengo orrietan **Arartekoak 2010ean egindako jarduketa eta jardueren ikuspegi orokorra** eman nahi dugu. Haiek denak Euskadiko Ararteko erakundean lan egiten dugun 52 lagunok egindako lan bikainaren emaitza dira.

Azpinarratu nahi nuke, azken hilabeteotan, Arartekoak **2010-2014** aldirako dauzkan **programa helburuak** gauzatzen hasi direla. Helburuok Eusko Legebiltzarrak bost urteko bigarren aldi baterako hautatua izan ondoren abiarazitako hausnarketa estrategikorako prozesuaren ondoren finkatu ziren. Programa helburu horien artean, Arartekoaren **antolaera berria eta egitura** edo arlo mapa berria azpinarra daitezke. Halakoak giza baliabideak erabat optimizatzeko eta zerbitzuak etengabe hobetzeko pentsatu dira. Arartekoaren antolaera eta egitura berri hori 2010ean bertan aritu da lanean. Zentzu horretan, azpinarratu nahi nuke **Haurtzaroaren eta Nerabezeroaren Bulegoa** eratu dela, Arartekoak haur eta nerabeen errealitate eta eskubideei dagokienez burutzen duen lana hobeto sistematizatu eta proiektatzeari begira.

Kexak izapidetu ez ezik, iaz Ararteko erakundeak **txosten bereziak argitaratzen** jarraitu zuen. Haietan, gure ustez, Euskadin herritar guztien eskubideen erabilera berdintasunez babes dadin, gogo handiz arreta eman behar zaien taldeak eta egoerak jaso dira.

Txosten bereziekin batera, euren oinarrizko eskubideei dagokienez, arrisku edo ahultasun egoeran dauden pertsona taldeei lotutako **jarduera ugari** burutu zituen Arartekoak. Horrela, zenbait ekimen gauzatu ziren: bilerak gizarte erakundeekin eta zenbait herri-administrazioetako arduradunekin; jardunaldi, mintegi eta batzarretan parte hartzea; ikerketa diru-laguntzak, etab. Tresna horiei guztiei esker aipatu egoerei buruzko informazio zehatz eta eguneratua jaso dugu herri-administrazio eskudunei gomendioak egin ahal izateko.

Bestalde, giza eskubideen aldeko erakundea garen aldetik, Ararteko erakundetik indar handiz azpinarratu behar dugu **giza eskubideen kultura sendotu beharra**, bai herri-botereek bai herritar guztiek haiek errespetatzeko printzipioa sustatzen eta sendotzen lan egin dezagun. Bestalde, garrantzitsua da adieraztea, **giza eskubideak zaintzeko eta hobetzeko** eskubideen errespetu eta defentsako balio demokratikoak oso barneratuta dauzkaten **herritar engaiatuak eta zorrotzak egon behar direla**. Datozen garaietan Euskadin urrats erabakigarriak norabide onean eman ditzagun opa dut.



Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa

DATU OROKORRAK

Orokorrean, **2010ean zehar Arartekoko jarduera multzo** zenbagarria (telefono bidezko kontsultak, bisitak eta kexak) **6.446**koa da, hau da, **iazkoa baino %3,75** handiagoa.


4.528 kontsulta egon dira, bai telefono bidezkoak, bai arreta zuzeneko Arartekoaren hiru bulegoetakoren batera bertaratuta. **Guztira 3.158** bisita jaso dira eta, horietatik, 734 kexa burutu dira, hau da, %23,24. Horrek arreta zuzeneko bulegoetan egiten den aurretiazko lanaren garrantzia agerian uzten du -arrazoi ugariengatik, Arartekoak ikertzerik izango ez dituen erreklamazioak ez dira onartzen-.

2010ean **guztira 1.859 kexa** aurkeztu zaizkio Arartekoari.

lax, gainera, **ofiziozko 59 espediente** hasi ziren. 2010. urtean bertan erabat izapidetu diren kexei dagokienez, **aztertutako kexen %32,44ean okerreko jarduerak atzeman dira**. Ukitutako administrazioak kexa eragin zuten jarduketak zuzendu ahal izan ditu, okerreko jardueraren bat agertu duten erreklamazioen %79,85an.

Kexek hizpide duten gaiari dagokionez, 2010. urtean **gizarte alorrari buruzko erreklamazioek, orokorrean, gora egin dutela** antzeman dugu. Halaber, trafikoko alorrean, hezkuntzan, herri administrazioen zerbitzuetan eta etxebizitza eremuan gehikuntzak egon dira.


Kexa bilakatutako bisitak




■ Bilbao 262
■ Vitoria-Gasteiz 209
■ Donostia-San Sebastián 263
Guztira 734

Herritarrei laguntzarekin lotutako Ararteko erakundearen jarduerak

■ Telefono bidezko kontsultak	1370
■ Bisitak	3158
■ Kexak	1859
■ Ofiziozko jarduerak	59
Guztira	6446



Telefono bidezko kontsulta eta bisiten kopurua bulegoetan




ararteko erakundearen jarduera, zenbakitan


Udalen aurkako kexak izan dira ugariena (%42,07); Eusko Jaurlaritzaren aurkako kexak, berriz, %35,73 eta foru aldundien kontrakoak %16,01. Nolanahi ere, espedienteetan inplikaturako administrazioak ikertzeak **ez du esan nahi okerreko jarduerarik egin dutenik**, haren esku-hartzeren bat kexa eragile izan dela baizik.

Kexa aurkeztu duten pertsonak euren borondatez eta izena eman gabe betetzen duten inkestak adierazten du **Arartekoaren esku-hartzea**, alegia, adierazitako interesa, eskaintako arreta, egindako gestioak, etab., **oso ona edo nahikoa dela** (erantzun dutenen %80,87), baita kexa ebatzi ez den edo beren aurka ebatzi den kasuetan ere.


Itxitako kexa-espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera




Ofiziozko jardueren banaketa, eragindako administrazioen arabera



Oro har, zer iruditu zaizu Arartekoaren lana?



Nolakoa iruditu zaizu Arartekoak bidalitako informazioa?



Honako orriotan Arartekoak euskal herri-administrazioen jarduketei eta jarduketa horretan egon daitezkeen balizko eskubide urraketari dagokienez egiten duen balorazioa islatuko dugu. Aurkeztutako kexa gehienak gizarte eskubideen ingurukoa izan dira, baita Espainiako Konstituzioaren 103.2 artikulua ez betetzeak –horren arabera, administrazio publikoek eraginkortasun printzipioarekin eta legeari eta zuzenbideari erabat men eginez jarduteko betebeharra dute eta interes orokorreki objektibotasunez erantzun behar die.

Herritarrek administrazio onerako eskubidea daukate eta egon dira kasuak zeinetan oinarritzko eskubide eta askatasun publikoetako baten balizko urraketari buruzko kexak aurkeztu baitira.

Ararteko erakundearen aburuz EAEko eskubideen babesaren egoera baloratzeko erreferente nagusia Konstituzioko 10. artikulua da, zeinek honakoa baitio:

“Ordena politikoaren eta gizarte bakearen oinarri dira gizabanakoaren duintasuna, hari datzekion eskubide bortxaezinak, nortasunaren garapen askea, eta legeei eta gainerakoen eskubideei zor zaien begirunea”.

Horregatik, Arartekoak egiten dituen ekintza guztiak pertsonen duintasunaren eta balio demokratikoen erabateko babesak bideratzen ditu.





BERDINTASUN ESKUBIDEA

Ararteko erakundeak beti uste izan du berdintasunaren eta gizakiaren duintasuna errespetatzearen balioen alde egiteko, arreta berezia eman behar zaiola eskubideak urratzeko arriskurik handiena duten pertsonen egoerari: etorkinak, adinekoak, adingabeak, ezgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak, gaixo kronikoak, gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonak...

Euskal herritar askok bete beharreko helburua izaten jarraitzen du egiazko berdintasunak, eta helburu hori lortu nahi bada, kendu egin behar dira pertsona eta talde guztien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak. Kexa askok, zuzenean edo zeharka, berdintasun printzipioaren balizko urratzarekin dute zerikusia.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez, genero arrazoiak direla-eta egiten den bereizkeriarik larriena, indarkeria sexistaren fenomeno kezkarria da eta emakumeen duintasun, askatasun eta osotasun fisikoaren aurkako eraso onartezina da. Alde horretatik, honakoak aurkitzen ditugu: babeserako araudi jakin baten eraginkortasunik eta nahikotasunik eza, oinarriko zerbitzu sozial batzuen prestakuntza espezializatuaren falta, erakundeen erantzunaren sakabanaketa, prozedura judizialen esparruan gara daitezkeen disfuntzioak, urruntzeko aginduen eraginkortasunik eza, ustezko egintza batzuen zurruntasuna eta emakume etorkinei arreta berezia eskaintzeko beharra, arlo horretan ahulagoak baitira.

Halaber, kezkatu egiten gaituzte **prostituzioaren** munduan diharduten emakumeek daukaten babesgabetasun eta zaurgarritasun egoera eta emakumeek zenbait **jai jardueretan** pairatzen duten bereizkeriak.

Atzeritarrek eta gutxiengo kulturalak eskubideetan urradura gehien jaso ditzaketan taldeak dira, batik bat egoera administratibo irregularretan dauden kasuetan.

Azterlan zorrotzetan oinarrituta ez dagoen, alegia, ikerketa zorrotzetan oinarrituta ez dagoen **diskurtso sozial** bat zabaldu da herritarren artean, alegia, immigrazioa delinkuentziarekin lotzen da eta zerbitzu publikoak eta prestazioak gehiegikeriaz eta iruzur gisa erabiltzen dutela esan ohi da, eta egungoa bezalako krisi garaian oso kezkarria da. Atzeritarren garapena eta integrazioa zailtzen dituen elementu bat **diskriminazioaren kontra borrokatzeko** baliabide eraginkorrik ez dagoela da. Zentzu horretan, kezkarria da Espainiako atzeritarren eskubide eta betebeharren legea aplikatzeko eta haiek gizarteratzeko **araudiak** onartu gabe jarraitzea eta EAEn ere **Immigrazioaren III. Euskal Plana** onartzeke egotea. Bestalde, politika publikoek atzeritarren premiei eta egoerari egokitu eta, bestea beste, adina, generoa eta, adingabeei dagokionez bezala, zaurgarritasun egoera hartu behar dituzte aintzat.

Ijito herriko pertsonak oso estigmatizatutako taldea izan da tradizionalki, eta gizarte zerbitzu eta aukeretera gutxiago iritsi dira. Talde hau bazterketa sozialerako arrisku handiena duen taldeetariko bat da. Gaitzespen soziala, lan bazterketa, eta eskola eta etxe-bizitzaren segregazioa ijitoen bazterketa soziala sortzearen oinarri nagusiak dira.

Bestalde, **ezgaitasunen bat duten pertsonak** zailtasun larriak izaten dituzte gainerako biztanleekiko benetako berdintasuna lortzeko laneratzeari nahiz eguneroko bizitzari dagokienez. Izan ere, askotan ezinezkoa izaten da garraibideetara iristea edo hiri -eta arkitektura-oztopoak gainditzea.

Legerian aurrerapauso erraldoiak egin diren arren, homofobiak eta heterosexismo baztertzailak, estigmatizazio eta bereizkeriaz gain, gizarte bazterkeria izugarria ere ekarri dute **persona homosexual, gay eta lesbianen aurka, bai eta nortasun transexualekoen eta transgenderoekoen aurka ere**. Osasun arloari eta lege identitateari dagokien gaietatik harago doan transexualei arreta integrala eskaintzeko legedia beharrezkoa da, bizitzaren beste alderdi batzuk kontuan hartuko dituen.



FUNTSEZKO ESKUBIDEAK ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

Bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubidearen babesa Ararteko erakundearen lehentasuneko arduretako bat da. Erakunde honek beti salatu izan du Euskadin jardun duten edo oraindik diharduten talde terroristak guztiak eskubide horiek urratzen dituztela.

Botere publikoek **jazarpen indarkeria** deitutakoa jasaten duten pertsonen erantzun egokia eman behar diete. Ildo horretan, ezagutza eta elkartasuneko neurri publikoek gain, beharrezkoa denean, laguntza psikologikoa edo jasaten duten jazarpen egoeraren ondorioz etxebizitzari edo lanari loturik dituzten arazoetarako laguntza eman behar zaie.

Polizia bulegoetan **tortura edo tratu txarrei** lotuta gertatzen diren balizko ekintzak direla-eta egiten diren salaketek ere kezkatu egiten gaituzte. 2004ko abenduan Arartekoak Adierazpen bat argitaratu zuen zenbait neurri proposatzeko. Ararteko erakundeak esku hartzeko duen bidea poliziaren jarduna etengabe ikuskatzeko lan prebentiboaren alorrean kokatzen da. Helburua polizi kidegoek torturari edo tratu txarrik ez ematea da eta, horrelakorik jazozen den kasuan, bidegabeko jarduera horiek ezagutu eta zigortzea posible izatea. Adierazpen hori aurkeztuta sei urte igaro ondoren, erakunde honek egoki iritzi dio. Besteak beste, berriz azpimarratuko dugu atxilotetaren ikus-entzunezko grabazioa egiteko premia.



Atxilotuen eskubideei dagokienez, azken urteotan, poliziaren aldetik tratu desegokia jaso izana edo Ertzaintzaren agenteek edo udaltzainek polizia bulegoetatik kanpoko operazioetan gehiegizko indarra erabili izana salatu duten hainbat kexa jaso ditugu. Dirudienez, kasu batzuetan, horrelako egoerak detektatzeko eta berriz gertatzea ekiditeko eta agenteak ordenamendu juridikoak atestatu edo salaketa bat egiteko ematen dien ahalmenaz gehiegi baliatzea prebenitu eta kontrolatzeko eman ditugun gomendioetan aipatu ditugun **prebentzio eta kontrolerako mekanismoak ez dira betetzen ari.**

Era berean, **atxiloteta ez inkomunikatuei** lotutako kexak aurkeztu dira. Horiek honako alderdi hauei buruzkoak izan dira besteak beste: horien iraupena, batzuetan atxilotua atzeritarra izateagatik, letratuaren laguntza izateko eskubidea eta atxiloteta jakinarazteko eskubidea urratu izana, eta gorputzerregistroa egitean guztiz biluztu izana.

Bestalde, **intimitate eskubidea** eta administrazioek erabiltzen dituzten **izaera pertsonaleko datuen babesa** bermatzeko hiritarren esijentzia gero eta handiagoa da. Konfidentzialtasunarekiko errespetua exijigarria da izaera pertsonaleko datuak dituzten fitxategien kopuru handiaren aurrean, izan baliabide informatikoen bitartez zein ez, izan kalifikatuak edo ez bereziki babestuak. Urtean zehar behin baino gehiagotan filtratu zaizkie hedabideei espediente judizialetatik azaldutako datu eta zirkunstantzia pertsonalak; gure ustez, difusio horrek, batik bat adingabeen kasuan, intimitate eskubidea urratzen zuen.

Osasun arloan, informazio eta dokumentazio klinikoaren alorreko eskubideak eta betebeharrak kexaren xede dira oraindik ere horiek eskuratzeko eskubidea mugaturik ikusi duten gaixoen partetik.





Erakunde hau euskal administrazio publikoek berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioei zor dioten errespetua bermatzen saiatzen da. Horiek, Konstituzioaren agindu espresagatik, **enplegu publikora iristean** agertu behar dira.

Euskal herri-administrazioek gero eta gehiago zaindu behar dute **hautaketa prozesuen** antolaketa, interesdun hautagai guztien berdintasun eta lehiaketa baldintzen bermeak ahalik eta onenak izan daitezen.

Halaber, pertsona guztien funtsezko eskubideetako bat da **epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea**, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik.

Kexatzeko arrazoi nagusiak izan dira prozesu judizialak gehiegi luzatzea, **justizia administrazio**ko langileek emandako tratua, edo funtzionamenduan gertaturiko errakuntzak edo arduragabekeriak.

Kasu batzuetan, badira kontuan hartu ez diren ustezko zirkunstantzia pertsonaletako batzuk, batik bat ezarri zaizkien zigor eta neurrien exekuzioaren ondorioak, funtsean: bergizarteratze soziolaboraleko prozesuak, atzerritarren adingabetasun penala eta adimeneko gaixotasun larriak.

Zirkulazioko zehapen araubideari dagokionez, kezkarria da formula orokorrak edo salaketa orrian aurretik inprimatutako formulak erabiltzea, defentsarako eskubidearekin horrek duen loturagatik. Jarduketa hori desegokia da, batez ere, salatzen diren arau-hausteetan bil daitezkeen froga bakarrak salatzailearen eta salatuaren bertsio kontrajarriak direnean.

Azkenik, **babestutako etxebizitzak eskuratzeko prozedurari** dagokionez, azpimarratzekoa da BOE eskatzaileei azken urteetan eragindako babesgabatasun arazoak Etxebizitza eta Gizarteko Gaietako Sailak herritarrekiko harremanetan erabiltzen dituen jakinarazpen eta komunikazio moduengatik.

Konstituzio aginduak ezartzen duenez, **askatasunaz gabetzeko** zigorren helburua berriro gizarteratzea da. Administrazio zentralaren eta autonomikoaren arteko lankidetzaren funtsezkotzat jotzen dugu, indarrean dagoen araudiak exekuzio penalari buruz eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzeko asmoz. Zentzu horretan, oso balorazio ona egiten diogu Eusko Jaurlaritzako **bergizarteratze soziolaboraleko ibilbideen** alde egin izanari, pertsonen tresnak eman nahi baitzikiete zigor sistemaren jarduketak hobeto gizarteratzen lagun dezan.

Bestalde, **arreta psikiatriko** proposa jaso ez izana espetxeen sistemaren hutsune handietako bat da eta hala adierazi beharra dago. Hori are larriagoa da askatasunik gabeko pertsona askok izaten dituztelako patologia dualak.

Hezkuntza arloan, garrantzitsua da Hezkuntza administrazioak hezkuntza eragile guztien partaidetza herritarren hezkuntza beharrezko errealen planifikazio demokratiko eta egokia sortzeko prozesuan bermatzeko apustua egitea. Horren kariatara, erabakigarria da lurraldeetako jarraipen batzordeen zeregina, beraiek egiten baitute araz eskola maparen egoeraren urteko azterketa. Planifikazio zeregin hori bereziki beharrezkoa da **0 eta 2 urte bitartean**; tarte horretan tokian tokiko entitateek ere garrantzi berezia dute.

Bestalde, hezkuntza premia bereziei erantzuteko hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazio handiagoa bultzatu behar da.



HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Zerga sistema aztertuz gero, kexa gehien sortzen dituen zerga **PFEZ** da. Edonola ere, hiru lurralde historikoetan zerga hori arautzen duten foru arau berriek garrantziko berritasunak gehitu dituzte eta, denborak aurrera egin ahala, arauon aplikazioak arazo gutxi sortu ditu.

Aurreko urteetan bezala, **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zerga** ezartzen duen araudiak xedatzen duen ezgaitasuna duten pertsonak salbuesteko aplikazio murriztaileak kexa ugari eragin ditu.

Zergen arloan, **administrazioaren isiltasuna** delako figuraren gehiegizko erabilera salatzen duten kexa kopuru handia ageri da, zergadunen errekurtsio eta erreklamazioek eragindako erantzun zehatz eta motibatua ezeztatuz.

Jabetza pribaturako eskubidearen edukia, bestalde, eskubide horri Konstituzioan ematen zaion funtzioak mugatzen du. Hori dela-eta, lursail bateko jabeak eraikitzeko jasaten duen muga eta zorua udalaren hirigintzako plangintzarekin bat etorri erabiltzeko duen betebeharra justifikatu egiten dira gure hiri eta herrien arrazoizko garapenaren gizarte interesarekin.

Lur jabeen eskubide eta betebeharrak kasuan kasuko hirigintza legediaren arabera gauzatzen dira. Jabe batzuek zalantzan jartzen dituzte udalen jarduera legitimoak, lanak egiteko edo erabilera aldaketak egiteko baimenak ukatzen dituztenean udal plangintzaren aurkakoak direlako.

Ondare erantzukizunaren irudiak esan nahi du herritarrek ondarean jasandako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko eskubidea dutela horiek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorio izan badira, eta horrek oraindik kexa ugari sorrarazten du. Herri-administrazioak, orokorrean, oso uzkur agertzen dira eragindako kalteen erantzukizuna onartzeko. Sarritan, kexak aurkeztzen dituzten pertsonak uste dute, beren ondasun eta eskubideetan jasan duten kaltearen aurrean, eragindako administrazioek ez dietela erantzuten beren kalte-ordain nahiei edota ez dituztela behar bezala arrazoitzen aurkeztutako erreklamazioak.

GIZARTE ESKUBIDEAK

Familia gizabanako gehien oinarritzko erreferentzia da eta adingabeen, adinekoen eta beharrian bereziak, mendekotasuna edo gaixotasunen bat dituzten gizabanakoentzako berebiziko zeregina du. **Familia tradizionalak bestelako ereduatarantz izandako bilakaerak** arreta berezia eskatzen du, eredu hauen guztien berdintasuna sustatzeko ere: familia guraso bakarrak, sexu bereko gurasoak dituzten familiak, bananduak edo berriz elkartuak.



Familia ugarietzako arreta eta familia gurasobakarrentzako babesa bultzatu behar dira.

Beharrezkoa da **lana eta familiako bizitza bateratzeko** neurrietzako laguntzak abian jartzea, egungo araudiarekin une honetan estaldurarik ez duten langile autonomoentzat.





Beharrezkoa da, halaber, herri-administrazioetako langileen lan baldintzak arautzeko legedietan lanaldia malgutzeko eta berrantolatzeko neurriak sartzea eta indarrean dagoen araudian sortzen diren interpretazio zalantzak argitzea.

Ararteko erakundea bikote bananduetan gurasoen erantzunkidetasunaren alde agertu da.

Bestalde, adingabeen egoeraz ohartarazi nahi dugu, genero indarkeria dagoen familien kasuetan.

Familiaren babesik gabeko haur eta nerabeei dagokionez, beharrezkoa da, udal zerbitzuen partetik batik bat, familiei laguntzeko eta esku hartzeko apustu sendoagoa egitea.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren egoera berezia da. Halako kasuetan gehien errepikatzen den arazoak zerikusia du dauden abegi protokoloekin eta lurralde historiko bakoitzean dauden irizpide desberdinekin, batez ere adina ezartzeari dagokionez.

Adingabe arau-hausleei dagokionez, familiako eta bikotekidearen aurkako indarkeria delituen etengabeko hazkundea eta babeserako sistemetatik datozen adingabeen proportzio altua oso larria da oraindik ere.

Hezkuntza premia bereziak dauzkaten zenbait talde eskolatzeari dagokionez, beharrezkoa da ezgaitasunak dituzten ikasleen, populazio etorkinetik datozen ikasleen, herri ijitoaren ume eta nerabeak eta gizarteak gutxietsitako populaziotik datozenen eta gizarte egoera ahulean dauden herritarren heziketa beharrezkoei erantzun egoki bat ematea.

Ume eta nerabeen adimenaren osasun-arreta adingabeen osasunerako eskubidearen arretarako beharrezko premiazkoenatariko bat da. Dударik gabe, adimenean osasun arazoak dituzten adingabeen kolektiboa gizartean une honetan hasten ari den taldeetako bat da. Hori dela-eta, administrazioen arteko koordinazioan sakondu behar da talde horren premiei erantzun ahal izateko.

Berdinen arteko eskola jazarpena tratamendu iraunkorra behar duen fenomeno da, hain larria izanik, eta familiek, bizikidetzan planek eta hezkuntza zentroek artikulatutako gainerako tresnek zeregin garrantzitsua dute kasu honetan. Datu positibo gisa alpa liteke azken urteetan behera egin duela Hezkuntza Ikuskaritzaren aurrean salatutako eskolako jazarpen kasuen kopuruak.

Kezkagarria da **haur txirotasuneko** egoeren hazkundea.

Osasunerako eskubideari dagokionez, gaixoen kezka-gaiak ez dira soilik osasun asistentziaren ingurukoak: besteak beste, itxaron-zerrendak bezalako alderdi instrumentalak, zerbitzuen zorroa edo prestazioak lortzeko prozedurak ere ukitzen dituzte.

Itxaron-zerrendei lotuta jasotako kekek zerikusia izan dute tratamenduekin, bereziki hauekin: ernalezintasuna, ebakuntza kirurgikoak, espezialistei egindako kontsultak eta probak egitea. Era berean, kexa batzuetan azaldu da zenbait espezialisten falta nabarmena, adibidez, pediatria.

Gaitz kronikoak dituzten pertsoneri dagokionez, sistema soilik hobetu liteke kontuan hartzen baldin bada lehen mailako arreta, ospitaleak eta zerbitzu sozialak interdependenteak direla. Diru-sarrerak eta nahi gabeko tratamenduak gai oso sentikorrek dira **gaixotasun mentala duten pertsoneri** buruz ari bagara.

Egokia den ingurumena izateko eskubidea daukagu. Ingurumenaren arloan jasotako kexa askok udal baimenen araubidearen pean dauden **jarduera sailkatuen** zarata, usain eta keen ondorioz herritarrek jasaten dituzten eragozpenen ingurukoak dira.

Hots-kutsadurari lotuta gehien errepikatzen diren kekek ostalaritza establezimenduek sortzen dituzten zaratek eragindako eragozpenak salatzen dituzte. Merkataritzako lonjak gazte taldeak biltzeko lokal gisa erabiltzeak eragindako zaratei buruzko kexak ere badira.

Dirudienez, halako kasu askotan halako jarduerak eragindako eragozpenak arintzeko neurriak hartzerakoan udalak utzikeria edo geldotasun handiegia izaten ari dira.





Kutsadura elektromagnetikoak herritarrek kezkatzen ditu, energia elektrikoa zabaltzeko sareen, wifi bidez Internetera konektatzeko sistemen, telefonia mugikorren eta telebistaren instalazio eta antenek eragiten dituzten uhinen emisioa dela-eta.

Arartekoak **gardentasunari eta informazioa jasotzeko eskubideari** buruzko gomendio orokor bat egin du, eta batez ere ingurumenerako dauka garrantzia. Gure ustez, **ingurumeneko partaidetza** funtsezkoa da erabaki zuzena bermatzeko oraindik aukera guztiak zabalik daudenean.

Euskal herritarren parte esanguratsu baten arazoetako bat etxebizitza duina eskuratu ahal izateko zailtasun objektiboa izatea da.


Etxebizitza duin eta egokia **izateko eskubidea** oso mugatuta egon da azken garaiotan, krisialdi ekonomikoaren ondorioz. Euskal herri-administrazioek "krisiaren aurka hartutako neurriak" nahikoak ez direla ikusi da, horien bitartez dagoen babes publikoko etxebizitza eskaerari erantzun nahi bazaio eta egungo testuinguru ekonomikoan bizitasun handiagoz azaltzen ari den etxebizitza beharreko egoera bereziei aurre egin nahi bazaie.

Hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak, foru eta tokiko administrazioekin batera, bere gizarte eta etxebizitza publikoko politikak koordinatu behar ditu krisia etxebizitza duina izateko eskubidean eragiten ari den ondorio kaltegarriak arintzeko eta gizarte bazterkeriako egoerak saihesteko. Egungo krisia aukeratzat hartu behar da euskal herri-administrazioek etxebizitza programak eta politikak berritzeko duten moduaz hausnartu eta horiek aztertzeko, horren bitartez herritar guztiei etxebizitza duina eta egokia bermatu ahal izateko.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen eguneroko bizitzan zailtasun handiak izaten jarraitzen dute hura berdintasunezko baldintzetan garatu ahal izateko, arazoak baitituzte hirian ibiltzeko, erabilera publikoko eraikinetara sartzeko, garraioa erabiltzeko edo lanpostua eskuratzeko.

Ingurune fisikoaren edo hirigunearen eta eraikinen irisgarritasuna dela-eta, oraindik ere ezgaitasunen bat duten pertsonen erreklamazioak jartzen dituzte erakunde honetan. Urtero ari gara erreklamatzeko administrazio publikoei, eta bereziki udalei, analisi sakon bat egin dezatela irtenbide teknikoak instalatzeko hautabideen inguruan, hiriguneen irisgarritasun-arazoak konpontzeko. Zentzu horretan, berriz azpimarratu behar da herritar guztiek berdintasunez erabil ditzaketen instalazioak lehenetsi behar direla.





Asko aurreratu bada ere, **garraio publikoaren** irisgarritasun unibertsala da ezgaitasunen bat duten pertsonen aldarrikapen nagusietako bat, eta erronka handi bat, Euskal Autonomia Erkidegoan garraio publikoko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako eragileek aurre egin beharrekoa.

Baldintza berberetan emango den **hezkuntza** eta prestakuntza da sistemaren beste oinarriko zutabeetako bat ezgaitasunen bat duten pertsonak erabat eta aktiboki gizartera daitezten. Hala ere, hezkuntza errealitateak urrun dauka helburu hori erdiestea.

Zergei buruzko araudiak zerga-onurak ezartzen ditu. Horien bidez, batetik konpentsatu egin nahi dira ezgaituren bat duten familiak, gastu handiagoa egin behar izaten baitute, eta, bestetik, familia horiei eragiten dien ahalmen ekonomiko txikiagoari erantzun asmo zaio. Alabaina, gaur-gaurkoz dauden onuren aplikazioa kasu askotan interpretazio formalisten baitan dago.

Azkenik, adierazi nahi dugu oraindik ere Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko daudela **komunikazioaren irisgarritasuna** bermatuko duten neurri teknikoak. Horrela, garraio publikorako irisgarritasunari dagokionez, komunikatzeko zailtasunak dituzten gizabanakoen irisgarritasuna bermatzeko neurrien erabateko gabezia nabarmena da.

Era berean, egiaztatu dugu eraikin publikoetako arretaguneak kokatzen diren lekuetan informazioa eta komunikazioa erraztuko duten baliabide teknikoek hutsa, hezkuntza, osasun eta baliabide sozialen irisgarritasunari dagokionez.

Adineko pertsonen kolektiboa gero eta handiagoa da, euskal herritarren %20 ia, bizi-itxaropena areagotu egin delako. Horrez gain, oso talde heterogeneoa da; izan ere, batetik, autonomia pertsonala eta gizartean aktiboki esku hartzeko gai diren pertsonak barne hartzen ditu, eta, bestetik, autonomia pertsonala oso mugatuta duten menpeko pertsonak.

Zahartze aktibo eta osasungarria gero eta garrantzitsuagoa da, adineko pertsonak bizitza aktiboa eta autonomoa egitea sustatzen da, eta, horrela, pertsonen bizi kalitate hobea lortzeaz gain, gizarte zerbitzuen iraunkortasunerako ere mesedegarria da.

Bestalde, kezkarriak dira **adineko pertsonen jasaten dituzten tratu txar** egoerak, bereziki, psikologikoak. Errealitate hori ez da guztiz azaleratu, eta, ondorioz, beharrezkoa da tratu txarrak prebenitu eta antzemateko neurriak hartzea. Eusko Jaurlaritzak adineko pertsonen kontrako tratu txarren kontra borrokatzeko plan bat prestatu beharko luke.

Osasun eta gizarte arreta aldibereko, koordinatu eta iraunkorrerako beharrak, arretaren jarraitutasun printzipioari doitua, garrantzi berezia hartzen du adinekoen kasuan, eta bereziki menpekotasuna duten adinekoengan. Hori dela eta, aparteko interesa pizten duen dokumentua da EAEko **arreta soziosanitarioaren** irizpideak garatzeko dokumentu-markoa.

Berriz ere, agerian geratu dira foru aldundiek nagusientzako egoitza plazetarako finkatzen dituzten prezio publikoek zenbatekoetan dauden alde handiak. Prezio publiko horiek homogeneizatzea edo, gutxienez, egungo aldeak murriztea bilatu behar litzateke.

Titulartasun publikokoak izan arren kudeaketa pribatukoak diren adineko pertsonentzako **egoitza zerbitzuetako lan-gatazkek** argi adierazten dute beharrezkoa dela langileen greba-eskubidea eta egoitzetako adineko pertsonen osasunerako eta arreta zerbitzua jasotzeko eskubidea bateratzea, azken horiek izanda alderdirik ahulena.



FAMILIA INGURUKO ZAINZETARAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN ARAUDI BERRIA ARABAN, BIZILEKU BEREAN LAGUNTZAREN TITULAR BAT BAINO GEHIAGO DAGOEN KASURAKO

Arabian familia inguruko zaintzetarako prestazio ekonomikoa arautzen zuen legediak xedatzen zuenez, bizileku berean laguntza horren titular bat baino gehiago egonez gero, bakoitzaren zenbatekoa %25 murriztuko zen. Alderdi horri dagokionez, mendekotasun egoerako adingabeko seme-alaba bi zeuzkaten gurasoen zenbait kexa jaso genituen, neurriak eregiten zirelako. Egutero seme-alaba horiei arreta emateko dauzkaten zailtasunak azaldu zizkiguten, pertsona bakar batek arreta ematea izugarri zaila –are ezinezko- bihurtzen baita. Kasua aztertuta **zailtasun horiek eguneroko egoeretan, hala nola eguneroko bainuan eta garbiketan** edo ikastetxera edo okupazio-zentzura joateko igogailua erabiltzean (igogailuan ez dira aulki bi batera sartzen eta ezin dute inor bakarrik utzi) aurkitu genituen. Pertsona bakar batek ezin ditu seme-alaba biak bere ibilgailuan garraiatu, gidatzen badu beste pertsona batek zaindu behar dituelako. Alegia, pertsona horiek **etengabeko arreta** behar dute eta ez da posible hori pertsona bakarrik ematea. Bestalde, familia horiek gastu berezi askori (altzari jakin batzuk, ibilgailu berezia, gurpil-aulki bereziak, etab.) egin behar diote aurre. Gainera, ezkontide batek bere lana utzi behar izan du bere seme-alabei arreta emateko.

Egoera horretan, egiten zen deskontuak eragin oso kaltegarria zeukan familia ekonomian.

Arartekoak **ofiziozko esku-hartzeari** ekin zion Arabako Foru Aldundiarekin, hari arautegia aldatuz deskontua deuseztatzearen aldeko gogoeta asko helaraziz. Aldundiak hura eskatzea onartu zuen, **prestazioaren arautegi berrian** islatuz, eta orain bertan ez da deskontu hura jaso.



GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA NEONATOLOGIAN

Basurtoko Ospitaleko pediatria-neonatalogiako medikuek euren zalantzak helarazi zizkiguten pisu txikiz edo minusbaliotasuna pairatzeko arrisku handiz jaiotako haur goiztiar baten familiari, Jaioberrien Unitatetik, eman behar zizkieten argibideei buruz. Zalantzarik gabe, **gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazio** kasu argia da, hura ezinbestekoa baita haur haiei eta haien familiei arreta osoa emateko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, haur horiek berariazko balorazio eskalaren arabera ebaluatzen ari ziren eta mendekotasun egoeraren onarpena lortzen ari ziren. Kasu askotan prestazio ekonomikoa eta arreta goiztiarreko zerbitzuak erabakitzen ari ziren. Komenigarria ikusi genuen foru erakundearen eta Basurtoko Ospitalearen arteko harremana behar zela iradokitzea. Izan ere, jakin dugu bilera bat egin zela eta, bilera horren ondorioz, Basurtoko Ospitaleko Neonatologia, Pediatria eta Gizarte Laneko sailek parte hartzen duten **jarduketa soziosanitaroko prozedura** abiatu dela, gaixoekiko eta osasun eta gizarte sistemen arteko **komunikazioa errazteko**.

Bestalde, **Hera proiektua** ere ezagutu dugu. **Neonatologia arloan osorik garatutako lan ekimen** gisa sortu zen eta diziplina anitzekoa da, arloan zerikusia duten eragile guztiak tartean sartuz. Dauzkagun datuen arabera, proiektu horretan espainiar Estatuko zenbait ospitaletako –haien artean dago Basurtoko Ospitalea– neonatologia, erizaintza eta psikologiako profesionalak parte hartzen dute.





ATZERRITARRENTZAKO ARRETA JURIDIKO-SOZIALEKO ZERBITZUA KENTZEA

2010ean, atzerritarrei lotuta, ofiziozko zenbait jarduketa burutu dugu, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak **HELDU, atzerritarrentzako arreta juridiko-sozialeko zerbitzua kendu** izanari dagokiona.

Programa 2002an abiatu zen eta I. Euskal Immigrazio Planean eta II Planean zegoen aurreikusita. HELDU programa **immigrazio plan berririk onartu gabe** kendu zen. Zerbitzuaren hartzaile nagusiak gure udaletan egoitza-baimenik gabe bizi diren atzerritarrak, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, tutoretzapean edo neurriren baten pean eta Eusko Jaurlaritzako gazte-justiziaren berreziketako ikuskapen pean egondako gazteak, tratu txarrak pairatutako emakumeak, etab. ziren. Azken batean, zenbait zerbitzu publikoren arreta jasotzen duten talde oso ahulak. Baina pertsona horiek arreta juridiko espezializatuaren premia argia daukate. Horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzari adierazi genien, eredu berria abiarazi gabe, HELDU kentzeak erabiltzaileei eta arreta ematen dieten pertsonen **ziurgabetasuneko egoera** eragin ziela. Era berean, beharrezkoa zen arreta maila hondatzea saihestea eta aldi baterako abiarazitako neurri guztiak indartzea. Halaber, adierazi genuen prestatzen ari den ere du berri **prestazio horri eutsi behar zaiola** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburuak lortzera eta ahultasun eta babesgabetasun maila oso handiko pertsonentzako arretara zuzenduta dagoelako.

Eredu berriaren diseinuari dagokionez urratsak eman arren, **Arartekoak oraindik jasotzen ditu kekek** legez kanpoko egoeran dauden pertsonentzako arreta juridiko ezari edo eskasari lotuta.

INFORMAZIOA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Gero eta tokiko administrazio gehiagok arautzen dute zenbait egitura sortzea herritarrek tokiko bizitza publikoko gaietan parte hartu ahal izateko. Herritarrek parte hartzeko bideek erraztu behar dute erabaki politikoak hartzeko prozesuan esku hartzea eta, beraz, talde antolatuen eta herritar guztien **lankidetzara eta ekarpena zenbat eta zabalagoak izan, hartutako erabakiak eraginkorragoak izango dira.**



Hala ere, herritarrek parte hartzeko erakunde tresna horiek sortzea ez da nahikoa ondoren behar duten protagonismoa ematen ez bazaie. Herritarrek parte hartzeko bideak sortzeko ekarri behar luke tokiko gobernuek, egiatan, onartu egiten dutela **informazioa hobeto eskuratzeko, egiten dutenari eta egin nahi dutenari buruzko gardentasun handiagoak eta erabakietan parte hartzeko bideen optimizazioak** honakoak ahalbidetzen dituztela:

- Erabaki hobeak hartzea.
- Hartutako erabakiak eraginkortasun handiagoz ezartzea.
- Jendea hartutako erabakiek heldu behar dieten arazoei buruz sentsibilizatzeko.
- Herritarrei engaiatzeko aukera ematea.
- Agintariei herritarren kezak eta eskarmentua aintzat hartzen laguntzea.

Zentzu horretan, interesgarria da egiaztatzea, batzuetan, jokatu nahi den izpiritua eta herritarren parte hartzearen araudia bera ez datozela batere bat eguneroko errealitatearekin.

ASEGURU PRIBATUAREN ETA HAREN ASEURATUAREN ARTEKO HARREMANAK AZKEN HORREN ESTALDURA PUBLIKORAKO ESKUBIDEA OZTOPATZEN DUENEAN



Prestazio bat lortzeari dagokionez, pertsona batek kexa bat aurkeztu zigor aspaldi pairatu zuen **trafiko istripu baten ondorioz behar zuen aukia ukatu zitzaio**lako. Aseguru konpainiarekin lortutako akordioan pertsona horrek, garai hartan, ondorengo ekintza orori amore egitea onartu zuen. Gurpilaulki berria eskatu zuen –aseguru publikoaren barruan prestazio horretarako eskubidea dauka– baina Osasun eta Kontsumo Sailak ukatu egin zion amore eman izanagatik. **Jokabide horri okerra** deritzogu. Hori dela-eta, osasun administrazioari gure balorazioa helarazi genion. Horren arabera, interesdunak prestazioak jasotzeko daukan eskubideak ez dauka loturarik sistema publikoak ordaindu behar duten hirugarrenei zenbatekoa eskatzeko balizko eskubidearekin. Halako egoeretan **aseguru pribatuak bere aseguruarekin daukan harremanak azken horren estaldura publikorako eskubidea oztopatzen du**, eta egoera horiek ez dira berriak.

2010ean, aipatu kasua ez ezik, beste bat ere izapidetu dugu. Bertan, herritarra kexu zen Gurutzetako Ospitaleak emandako laguntzaren kostua eskatzen ziolako, haren jatorria jai gertakizun batean gertatutako istripuan zegoelako eta, beraz, ordaindu behar zuen hirugarren aseguratzaile batek estali behar ziola ulertzen zuelako. Gure ustez **halako jarduketek ezin dute babesik aurkitu Osasunaren Lege Orokorreko xedapenetan**.

PRESTAZIO EKONOMIKOAK LORTU AHAL IZATEKO BETEKIZUNAK FROGATZEKO ZAILTASUNAK

2010ean Arartekoak **prestazio ekonomiko**en –besteak beste, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE), Etxebizitza Prestazio Osagarria (BPO) eta gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL)- **onuradunak izateko pertsonak bete behar dituzten betekizunei buruzko** kexa asko izapidetu ditu.

Zehazki, **bizileku independentea frogatzeko** zailtasunari, helbide berean udal erroldan, etxebizitzan bizi ez arren, erregistratutako pertsona gehiago egoteagatik **prestazioa izapidetzea ukatzeari** edo **etxebizitzak bizigarritasun baldintzak betetzen ez dituen** kasuei buruzkoak dira. Zenbait kasutan **etxebizitza berean diru-sarrerak mugatzeari** buruzkoak ere badira.

Kexak aztertzerakoan, antzemandako arazoetako bat udaleko oinarriko gizarte zerbitzuek eta Foru Aldundiek **araua modu desberdinetan interpretatzean** datza. Etorkinei dagokienez, gainera, ikusi dugu, neurri handiago edo txikiagoan, zenbait betekizun eskatzen zaizkiela, hala nola jatorrizko herrian ondasun higiezinik ez edukitzea eta dibortzioa edo elikadura pentsioen eskaera frogatu beharra.

Bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak gabezia ekonomiko eta pertsonal larrietako zenbait errealitate bizi dituzte; hortaz, **ahultasun egoera bakoitzak arreta eta balorazio egokiak jaso behar ditu**. Kasu batzuetan lortu ezinak diren agiri batzuk eskatzeak arautegian xedatutako betekizunak betetzeko eskakizunarekin nahastu dezake. Oinarriko gizarte zerbitzuen proposamena eta gizarte txostena, beraz, zorrotztasunez eta egoera pertsonal eta ekonomikoari buruzko datuen bidez egin behar dira.



ETXEBIZITZA ESKATZAILEEN ERREGISTROA

Aurten, berriz ere, Etxebizitza arloan jasotako kexetako asko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari buruzkoak izan dira, erregistro horretan inskribatzea **ezinbesteko betekizuna** delako babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan parte hartzeko.



Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren jokabideari buruzko zenbait erreklamazio jaso dugu, **erregistro horretan elkarrekin inskribatuta dauden bikotekide edo ezkontideak banantzen direnean bikotekideetako bat berriz inskribatzera derrigortzen dituztelako**, besteak elkarrekin egin zuten inskripzioaren antzintasunari eusten dion bitartean. Erreklamazioegileen aburuz hura ez zen bidezkoa eta argudiatzen zuten banandu ostean biek zutela etxebizitza premia berbera. Egiaztatu genuenez, sailak esan ziguten bezalaxe kudeatzen zituen halako kasuak. Hortaz, inskribatutako bikoteen hausturak kudeatzeko erabilitako irizpidea justifikatzen zuten arrazoi juridikoak eta, antzintasunari eusteari dagokionez, elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsona bien aldeko interpretazio berdina eragozten zuten lege oztupoak azaltzeko eskatu genuen. Emandako erantzunean, sailak jakinarazi zigun erabilitako **irizpidea aldatzeko prest** zeudela, baina, bestalde, adierazi zigun, lege arrazoiengatik eta arrazoi teknikoengatik, ezingo zela berehala egin.

Arartekoak konpromisoaren betetze mailaren jarraipena egingo du.



ABANTO-ZIERBENAKO SANTA JULIANA AUZOKO GIZARTE ETA HIRI HONDATZEA

Arartekoak Abanto-Zierbena udaleko Santa Juliana auzoak pairatzen duen **gizarte eta hiri hondatzeari** buruzko jarduketeta bat amaitu du.

Eman genuen ebazpenean erakunde eskudunei (Abanto-Zierbenako udala, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Saila, eta, erabakitzen den neurrian, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila) eskatu genien, lehentasuna emanez, auzoko esku-hartze integralean aurrera egin dezatela, azken urteotan pairatzen ari den gizarte eta hiri hondatzea konpontzeko. Horretarako, erakunde eskudunek gizarte eta hiri esku-hartzeko neurrietarako **plan zehatza** ezarri behar dute; plan horrek auzoko legezko okupatzaileei **bizileku berria emateari buruzko berariazko atala** eduki behar du, Santa Juliana auzoan sortutako **elkarbizitza arazoak** konpontzeari begira. Halaber, interesgarria da, era koordinatuan, neurrien **plangintza eta jarraipena egiteko erakunde egonkorra sortzea**, eta bertan bideak aurreikustea auzokoek parte hartu ahal izateko. Edonola ere, hiri-berroneratzerako aurreikusitako neurriei, luraren jabeek ekarriko dizkieten eskubide eta betebeharrei eta, batez ere, etxebizitzaren okupatzaile legalek bizileku berria jasotzeko duten eskubidearen edukari buruz **informatzeko eta auzokoek parte hartu ahal izateko bidean sortu behar dira**.

UDALEN INBERTSIO POLITIKA ERABAKITZEKO INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA



Oraindik agertzen dira kekek **landa-bideen zaintza eskasagatik** eta **udalen jarduketarik ezagatik**. Gai konplexua da, udalek, are gehiago landa eremuetan, zaindu beharreko kilometro asko bide eta baliabide mugatuak dauzkatelako. Horregatik, garrantzitsua da udalek arlo horri buruzko politika epe luzerako finkatzea, honakoak zehaztuz: diru-laguntzen bidez esku hartzeko edo sustatzeko kasuak (adibidez: publikoak ala pribatuak

izatearen arabera); erabilera intentsitateko, burutzen den jarduera ekonomikoko (nekazaritza jarduera profesionalak) edo egokitatzat jotzen diren irizpideen arabera lehenetasunez zein bidetan esku hartuko duten. Horiek denak behar bezala ezagutarazi beharko dituzte ukitutako guztiek ezagut ditzaten.

Informazio eta gardentasun politika hori erabilgarria litzateke bide horiek darabiltzaten auzokoek **hobeto ulertzeko zergatik onartzen diren proiektu batzuk eta ez besteak**, hola komunikazio faltak eragin ohi dituen mesfidantzak ezabatuz. Horri dagokionez, Arartekoak adierazi du, tokiko administrazioek euren inbertsio politika erabakitzeke autonomia osoa izan arren, horrek ez duela galarazten euren erabakiei buruz behar beste arrazoi eman behar dutela. Izan ere, udal esku-hartzea laguntzen bidez egiten den kasuetan, **Legeak honako oinarriak betearazten ditu:**

- Publizitatea, **gardentasuna**, lehia, **objektibotasuna**, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Administrazio emaileak **finkatutako helburuak betetzeko eraginkortasuna**.
- Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko **eraginkortasuna**.

HIRIGINTZA LANAK ETA INDUSTRIALDEA ERRIGOITIN

Errigoiti-Arrieta-Garbi auzo plataformak helarazi zigun ez daudela ados Errigoitin (Bizkaia) industrialdea eraikitzearekin, **biomasa planta** bat jartzea ahalbidetuko lukeen industria erabilera ezartzeak ingurumenari ekarriko lizkiokeen ondorioengatik.

Gune horren garapena onartu zuen plan partzialak ez zekarren industria erabilera hori edukitzeko aukerarik eta ez zen lotu ingurumen ebaluazio prozedurari. Halaber, gune horretarako aurreikusitako **hirigintza proiektuaren ingurumen-inpaktua zalantzan jarri zen**; Udalak gunearekiko lotura hobetuko duen bide bat egokitzeko sustatutako lanak ere jarri ziren zalantzan. Kontu beraren barruan, adierazi zuten **administrazio hidraulikoaren baimena falta zela** zortasun-zonan obrak egiteko eta Uraren Euskal Agentziak **gelditzeko agindua egikaritzea** dekretatu zuela.

Hirigintza proiektuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak ingurumen-inpaktuaren ikerketa egitea dauka aurreikusita. Bidea egokitzeko lanei dagokienez, udalak azkenean hasitako obren gertatzeko baimena eskatu du. Hala ere, dagokion zehapen espedientea ireki da eta administrazio hidraulikoari gelditzeko agindua betearazteko betebeharra dagokio.





ISURI KUTSATZAILEAK GUTXITZEN DITUZTEN GAILU KATALIZA- TZAILEDUN IBILGAILUEN TITULARRENTZAKO ZERGA HOBARIA

Herritar batek, 2000E Planari helduz ibilgailu bat erosi ondoren, Bilboko Udalari **Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren %25eko hobaria** aplikatzeko eskatu zion, zerga ordenantzak 2010 eta 2011 ekitaldietarako xedatzen zenez. Haren eskaria, ordea, ezetsia izan zen bere ibilgailuaren CO₂ isurpenak 135 gr/km baino handiagoak zirelako. Ordenantzako testuak zerga onura emateko ibilgailuaren CO₂ isurpenak maila jakin bat ez gainditzeko baldintza jartzen ez zenez, bere desadostasuna agertu zuen Bilboko Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan. Hark erreklamazioa ezetsi zuen, baina agerian utzi zuen **Ordenantzako testuak ez zuela laguntzen hobaria lor zezaketen ibilgailuak zein ziren bereizten.**

Egia da Udalak asmo argia zeukala zerga hobaria gutxien kutsatzen duten ibilgailuen titularren alde ezartzeko, baina argi dago erabilitako teknika ez zela egokia, **zerga ordenantzan jasotzen ez zen betekizuna betetzea eskatzen ari zelako** eta, beraz, era okerrean ari zen jokatzeko. Hori dela-eta, Bilboko Udalari hobariaren irismena era objektiboan zehazteko behar ziren ekimenak har zitzala eskatu genion. Udalak **irtenbide azkar eta orokorra** bilatu zuen, udalbatzak hobarirako idazketa berria onartzen zuen bitartean: 2011. eta hurrengo urteetarako, isuri kutsatzaileak gutxitzen dituzten gailu katalizatzailedun ibilgailuen titular guztiei onartuko zien hobaria, zein ere ziren haren CO₂ isurpenak.

TXAKUR BATZUEK ARAZO ETA OSASUN ARAZOAK SORTZEN DITUZTE

Askotan, inguruko auzokoei txakur batzuek sortzen dizkieten **zarata eragozpenei** eta **osasun arazoei** lotutako kekek jasotzen ditugu. Arlo horretan egiten dugun esku-hartzea batez ere administrazioek, **animaliak babesteko legeen** eta haiek edukitzea arautzen duten **udal ordenantzen** bidez, animaliei eman beharreko tratua arautzen duen legediari egiten dioten kontrollean eta jarraipenean datza.

Esaterako, pertsona batek, bere iritziz, Erandioko Udalak animaliak edukitzeko araua betearazteko izandako permisibitate eta pasibotasuna salatu zituen. Adierazi zigunez, txakur batek, bere etxe azpiko pisuan, zarata eragozpen handiak eta are osasun arazoak sortzen zituen, animalia egun ia guztian bakarrik zegoelako, zaunkaka beti, baita gauzez ere. Esan zenez, udalean hainbat erreklamazio egin zituen baina ez zuen emaitzarik lortu. Dirudenez, udaltzaingoa zenbaitetan bertaratu zen salatutako etxebizitzan baina, ezin izan zenez bertan bizi den pertsona kontaktatu, ezin zuen neurririk hartu.

Udalan jakinarazi ziotenez, lehenbizi, **jabe komunitateak eskatu behar zien animalia jabeari neurriak hartzeko**. Salaketa gehiago egin ondoren, ordea, animalia arduradun txakurraren agiriak eta txip zenbakia aurkezteko eskatu zitzaizkien eta euren ardurapeko animaliak mantentzeko bete behar dituzten betebeharrak gogorarazteko idatziak igorri zitzaizkien. Epea eskatutako agiriak aurkeztu gabe amaitu zenez, **udalak zehapen espedientea zabaldu zuen.**



EAEKO ERAKUNDEEN JARDURA NERABEEN DROGA KONTSUMOAREN ARLOAN

Txosten honetan erakundeek adingabeen eta drogen arteko harremanaren bilakaerari nola erantzuten dieten aztertzen da nagusiki, baita zein emaitza lortu diren, arlo horretako eragilean iritzia zein den, zein diren indartu behar diren jarduera-lerroak... ere.

Azterlana ikusirik ondoriozta daiteke **erakundeek** (tokiko erakundeek, ikastetxeek...) **maila handian esku hartu dutela** nerabeei zuzendutako programa eta ekimenetan, drogen kontsumoak eta horiekin lotutako arriskuak murrizteko. Hala eta guztiz ere, **kontsumoak eta ohitura arriskutsuak urterourtero mantentzen dira**, eta, gainera, batzuetan areagotu ere egiten dira adintarte jakin batzuetan edo substantzia jakin batzuen kasuan.

Egia da, hala ere, eskolaikaslak gehienek noizbait probatu egiten dituztela droga batzuk (tabakoa, alkohola edo cannabisa, adibidez), baina egia da ere ez dutela aldizka kontsumitzeko ohitura hartzen. Beraz, garrantzitsua da noizbehinkako kontsumoak, ohikoak, arrisku handikoak, menpekotasuna... bereiztea. Nerabe askok ez dute kontsumitzen edo noizbehinka kontsumitzen dute. Askotan, beren bilakaeraprosesurekin lotuta egoten da eta horrek ez du esan nahi etorkizunean drogazale bihurtuko direnik.

Beraz, garrantzitsua da analizatzea nerabezeroan drogaren kontsumoa ez dela fenomeno isolatua, alegia, geure testuiguru sozialean kokatu behar dela.



Arantxa Quiroga eta Iñigo Lamarca

Droga batzuk legezkoak dira, beste batzuk, aldiz, legez kanpokoak; kontsumo batzuk onartuta daude eta beste batzuk debekatuta daude; kontsumo edo erosketa batzuk legezkoak dira helduentzat, baina adin txikiko pertsonentzat ez; toki batzuetan substantziak saldu eta kontsumitzea araututa dago, beste toki batzuetan, berriz, debekatuta dago... Balorazio eta praktiketan batzuetan kontraesanak aurki ditzakegu.

Nerabeek drogak kontsumitzeari buruzko politikek, beraz, herritarren politika eta praktikekiko koherenteak izan behar dute. Beti sustatu behar dute bizimodu osasuntsua, eta, horretarako, beren helburuak eta jarduerak kasuan kasuko baldintzetara egokitu behar dira, alegia, zenbait faktore kontuan hartuz, adibidez: adina, zaurgarritasuna edo eragin handieneko esparruak.

Txosten honetan modu argian azpimarratzen dira berehala **hobetu behar diren alderdi** garrantzitsu bi: arlo honetan lan egiten duten instantzia guztien arteko **koordinazioa** eta egoera bereziki zaurgarrian dauden nerabeen sektore jakin batzuetara bideratutako **prebentzio selektiboa** gehiago garatzea.

Txosten honetan jaso diren **21 gomendioek** aintzat hartu diren hiru esparruetako bakoitzean (eskolan, familian eta denbora librean), gizartearen pertzepzioan eta nerabeen partehartzeko aktiboan hobekuntzak lortzeko proposamenak planteatu dira, baita koordinazioaren eta zuzendaritza instituzionalaren arloan ere, bereziki zaurgarriak diren pertsonen talde jakin batzuei zuzendutako prebentzio selektiboko jardueretarako.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGOERA

Arartekoak hiru helburu izan ditu txosten honi heldu dionean: batetik, oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera zein den egiaztatzea, bestetik, 1999an egin zen lehenengo txostenetik horien bilakaera zein izan den aztertzea eta orduan egin ziren gomendioak zein mailatan bete diren baloratzea, eta azkenik, hobekuntzak ahalbidetzeko eta bere zeregina behar bezala bermatzeko konklusioak eta gomendioak proposatzea.

Ilido horretatik, azpimarratzekoa da duela hamar urte egin zen txostenean plazaratu ziren ohar eta gomendio asko oraindik ere erabat indarrean eta justifikatuta daudela.

Txostenean zerbitzuen eskaerak baliabideen areagotzearen arabera egokitu behar direla erakusten duten datu batzuk jaso dira.

Jasotako datuen arabera, bistakoa da oinarrizko gizarte zerbitzuetan gauzatzen den **lana “sozializatzea”** ezinbestekoa dela.

Gainera, erabiltzaileek profesionalen eta eskaintzen duten zerbitzuaren inguruko **oso iritzi ona** daukate. Aitzitik, **zerbitzuetan lan egiten duten pertsonen** ustez, eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatea galtzen doa, eta **beren lanaren ikuspuntu negatiboak** planteatzen dituzte. Nahitaez azpimarratu behar da premiazkoa eta **ezinbestekoa dela profesional horiei babesa eta zaintza psikosoziala** eskaintzea.

Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko diagnostikoan zenbait **gabezia** antzeman dira:

- **Beharrezkoa da oinarrizko gizarte unitateetarako eskuhartze eredu bat ezartzea**, baita buruzagitza argia egotea ere horien garapen eta hobekuntzarako.
- Horrekin lotutako **gastu soziala** eta eskuhartze sozialena **areagotu** egin da, baina **langileria-zuzkidurak ez** dira maila berean hazi.



Iñigo Lamarca, Arantxa Quiroga eta Julia Hernández

- Ez dago **eskuhartze eredu komunik**, eta, ondorioz, ez dago tresna, prozedura eta praktika profesional komunik.

- Horrekin lotutako **gastu soziala** eta eskuhartze **behar material batzuk oraindik ere ase gabe daude**.

Laburbilduz, funtzionatzen duen baliabide bat dela ondoriozta daiteke. Euskadin dauden oinarrizko gizarte zerbitzuen 262 unitateak finkatuta dagoen oinarrizko sare bat osatzen dute. Baina, hala ere, oinarrizko gizarte zerbitzuetan eragina duten **behar eta gabezia** batzuk daude eta horiei modu koordinatuan erantzun behar zaie hiru esparru instituzionaletatik, behar sozialek azkenean oinarrizko gizarte zerbitzuek gainezka egitea eragitea ekiditeko.



GURASOEN ERANTZUKIZUN PARTEKATUA BANANDUTAKO BIKOTEETAN: BOTERE PUBLIKOEN EGINKIZUNA

Gizartean aldaketak gertatzen direnean, legeetan ere aldaketak egin behar dira. Horixe islatzen dute generoberdintasuna, adin txikiko pertsonen eskubideen babesa eta antzeko beste arlo batzuetan lortu diren aurrerapenek. Horiei esker, umeak zaintzea bikoteko bi kideen zeregina delako ideia indarra lortzen ari da gizartean. Arrazoi Berbera dela eta, **banandu ondoren ere zaintza partekatzea** aukera desiragarri bihurtzen ari da. Zuzenbidean ezerk ere ez du aukera hori oztopatzen, baldin eta aukera hori -adin txikiko pertsonekin lotuta adosten den beste edozein neurriren kasuan bezala- ez bada kaltegarria adingabeen lehenasunezko intereserako.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan asko izan dira Arartekoarengana jo duten eta jotzen jarraitzen duten pertsonak, gizona eta emakumezkoak, eta etengabe azaltzen dute aurrerapen horiek ez datozela bat gure legerian aurreikusten jarraitzen denarekin, alegia, bi aldeen artean adostasunik ez dagoenean ere zaintza partekatua jasotzen da. Interesdunek diotenaren arabera, nahikoa da guraso bietako batek zaintza partekatzeari uko egitea eta, beste inolako argudiorik eman gabe, bi gurasoek umeen zaintzan betidanik maila berean parte hartu dutenean ere, epaileak ia derrigorrez baztertu behar du aukera hori.



Eztabaida hausnarketa sozial zabalago baten barruan dago kokatuta, eta gure lana, defentsa erakunde gisa, bikoitza da: batetik, generoaren perspektiba barne hartuz, arlo guztietan patroiz sexistak gainditzen lagundu behar dugu; bestetik, berriz, **Umearen Eskubideen Gutun Europarraren** aurreikuspena egikaritzen lagundu behar dugu, zehazki, honakoa honi dagokionez: *“Ume guztiek dute beren gurasoek gozatzeko eskubidea. Aitak eta amak erantzukizun partekatua dute umearen garapenari eta hezkuntzari dagokienez...”*. *“Izatez edo legez banantzen badira, edo dibortzio edo baliogabetze kasuetan, umeak bi gurasoekin zuzeneko eta etengabeko harremana izateko eskubidea dauka, eta bi gurasoek izango dituzte betebeharrak”*.

Hori dela eta, gure ustez, beharrezkoa da gure Kode Zibilak zaintza partekatuaren arauketa murriztaileak iradokitzen duen mesfidantza gainditzea. Ondo dakigu horrek **pentsaera aldaketa** bat eskatzen duela, aldaketa hori denbora joan ahala soilik gauzatu dela eta, hartu beharko liratekeen legegintzaneurriez haraindi, zalantzarik gabe, gizarte osoa barne hartzen duela. Hala ere, botere publikoen zeregina da helburu hori erdiestea zailtzen duten oztopoak kentzea, eta, horrexegatik, Arartekoak gomendio orokor bat eman du norberak, bere eskumenera irismenaren arabera, **bikote bananduen semealaben zaintzan gurasoen erantzukizun partekatua errazten duten legegintzaaldaketak** susta ditzan, baina, betiere, adingabeen interesak errespetatuz.



FAMILIA, LANA ETA NORBERAREN BIZITZA BATERATZEKO NEURRI GISA BIDERATZEA LANALDIA MURRIZTEKO ETA MOLDATZEKO EDO ALDATZEKO ESKAERAK

Gomendio horren helburua **bateragarritasuna menpeko senideak zaintzeko beharrezkoa** den kasuetan sakontzea da, zehazki, langile publikoak desadostasuna agertzen duenean lanaldiaren murrizketa eta egokitzapen edo aldaketa aukerei dagokienez.

Pertsona askok (iristen zaizkigun ia kexa guztiak emakumezkoenak dira) menpeko senideak zaintzeko (seme edo alaba adingabeak nagusiki) lanaldi murrizketaren eskaerarekin batera, txanda aldatzeko edo lanaldia laneko bizitza eta menpeko senidea zaintzea bateratu ahal izateko moduan antolatzeko eskaera bat aurkezten dute. Beste batzuetan, beren lanaldia edo laneko egutegia aldatzea planteatzen dute, baina lanaldia murrizteko eskaera bati atxiki gabe.


Batzuetan, administrazioek eskaera horiek ukatzen dituzte; izan ere, haien ustez, bateratzeak lanaldia legeak adierazten duen baldintzetan murrizteko eskubidea soilik barne hartzen du eta kontrakoa egiteak eraginpeko **zerbitzuen antolamenduan desdoikuntza handiak** eragin ditzake; horrez gain, horrek zerbitzu horietan lan egiten duten beste pertsona batzuei kalteak eragingo dizkie eta horien bideragarritasuna edo kalitatea eta eraginkortasuna ere zalantzan jar ditzake.



Horixe gertatu da, bereziki, beste pertsona batzuen arreta edo zaintzarekin lotutako lanen kasuan (adibidez, osasun zerbitzuak, adineko pertsonen arretarako zerbitzuak...). Lan horietan emakumeak aritzen dira nagusiki, zerbitzuaren beharren ondorioz lanaldiak irregularrak izaten dira, hau da, txanda desberdinak egoten dira, gauekoak ere bai, eta, askotan, txandaka antolatuta egoten dira.

Badakigu funtzio publikoko esparru askotan antolamendu ahalegin erraldoia egitea eskatzen duela, baina administrazioek langileen familiako eta laneko beharren **bateratze-maila altuagoak lortzen ahalegintzen** jarraitu behar dutela uste dugu, eta, nolana ere, eskaerak ukatu baino lehen, behar beste, objektiboki eta modu zentzudunean arazoitu behar dira zerbitzuaren berrantolaketa eragozten duten zailtasunak.

Horrez gain, **funtzio publikoaren egungo araudia aldatu edo egokitzeko ekimena** sustatzea bultzatu nahi dugu, familia eta laneko bizitza bateratzeko neurrien behar besteko estaldura juridikoa emateko, lana murriztu eta egokitu edo aldatzearekin lotuta. Horrez gain, langile publikoaren laneko baldintzen adostasun eta **negoziazio esparruetan neurri berberak praktikan jartzea** ahalbide dezaketek ekimenak bultzatu daitezela ere eskatzen dugu.



FAMILIA HOMOPARENTALEI ETA SEXU BEREKO BIKOTE EDO EZKONTIDEEI ADMINISTRAZIO OZTOPO FORMALAK KENTZEA

Gomendio hau guraso homosexualen familiekin, eta bikote eta ezkontide homosexualekin lotuta oraindik ere dirauten **eragozpen formal jakin batzuk zuzen daitezen** eman dugu. Bereziki lotuta daude gure errealitate sozial eta juridiko berrira egokituta ez dauden eredueta oinarritzen diren **inprimaki eta formularioak betetzearekin**. Gure ustez, ezinbestekoa da inertzia administratiboak etetea eta bikote bat edo guraso homosexualak dauzkan familia bat eratu duten pertsona homosexualentzat justifikaziorik gabeko zailtasunak eragin ditzaketen egoera guztiak berrikustea. Oztopo formal horien jatorria sakabanatuta dagoenez, planteatu den arazo honi modu bateratuan heltzea komeni dela pentsatu dugu; izan ere, arazoak maila administratibo desberdinetatik eta euskal administrazio eta organo publiko desberdinetatik nahiz zerbitzu edo prestazio publikoak kudeatzen dituzten erakundeetatik edo gauzatzen duten jardueran aritzeko administrazioaren baimena behar duten erakundeetatik sortzen dira.

Hori dela eta, **euskal administrazio publiko** guztiei eskatzen diegu izatezko bikoteei eta ezkontide homosexuali nahiz semealabak dauzkaten guraso homosexualen familiei eragiten dieten **inprimaki, formulario eta bestelako dokumentu guztiak formalki egokitze**ko, eta bikote, ezkontide edo familia horien

errealitate pertsonala berdintasun baldintzetan barne hartzen duen formula bat barne hartzeko. Euskal administrazio publikoei beren eskumeneko zerbitzuak edo prestazioak kudeatzen dituzten zentro edo erakundeei nahiz jardunean hasteko administrazioaren baimena behar dutenei ere horixe egin dadila exijitzeko eskatzen diegu.

Horrez gain, **emakume homosexual ezkontuen egoera anbigua dela egiaztatu dugu**, familia horietan **laguntza bidezko ugalketaren bitartez jaiotako umeen** semealabatasuna bi emakumeen alde ezartzeari dagokionez.

Horren harira, Eusko Jaurlaritzari zuzenean zuzendu diogu gomendioetako bat. Hori dela eta, laguntza bidezko ugalketa teknikak gauzatzen dituzten **osasan zentroetan** teknika horien bidez **seme edo alaba bat edukitzeko asmoa duten lesbiana ezkontuei zuzenean eragiten dien informazio legala eskaintzea** lortu nahi dugu. Zehazki, gure ustez, komenigarria da pertsona horiei jakinaraztea umea jaiotzen den unean haren amatasuna zehazteko, baina adopzio prozesura jo gabe, erditzea baino lehen, ama biologikoaren bikote den emakumeak kasuan kasuko Erregistro Zibileran joan behar duela Erregistro Zibilaz arduratzen den epailearen aurrean formalki adierazteko ume jaioberriaren semealabatasuna onartu nahi dutela.



EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA JAIE'TAN

Arartekoak etengabe eta ia bata bestearen atzetik jasotzen ditu **emakumeak tokiko jaietako ekitaldietan** nola edo hala **baztertuta egotearekin lotutako kexak**. Horiek guztiak Euskadiko hainbat udalerritan oso sustraiturik dauden tradizioen adierazgarri izaten dira. Salaketaarik azpimarragarrienak Irun eta Hondarribiko alardeekin lotutakoak dira, baina ez dira aurkeztu diren bakarrak izan. Besteak beste, aipatzekoak dira Ugao-Miraballesko babarrun eguna, Donostiako Danborrada nahiz Laudioko San Roke ermandadearen bazkaria. Kasu batzuetan, tokiko botere publikoek behar bezala bideratu dute arazoa, beste batzuetan, ostera, gure eskuhartzeak berdintasun printzipioaren arabera irtenbide bat bideratzen lagundu du. Hala eta guztiz ere, emakumeen baztertzea, oro har, mantendu egiten da erakunde pribatuaren kasuan; izan ere, beren funtzio parapublikoak gauzatuz, berdintasunerako agindu konstituzionala ez betetzen saiatzen dira, eta tradizioaren osotasuna defendatzeko egiten omen dutela adieraziz. Dagoeneko adierazi dugu zein den gure iritzia kasu jakin bakoitzari dagokionez, baina, gure ustez, **komenigarria da** jakabide horien guztien **atzean dagoen arazori elkarrekin heltzea**; izan ere, gure ustez, beharrezkoa da Euskadiko jai guztiguiztiak emakume eta gizonen arteko berdintasunezko gizartearen isla izatea, demokrazian posible den eredu sozial bakar gisa.

Nahitaezkoa da **tradizioak eraikitzen ari garen berdintasunezko errealitatera egokitzea** -jaieguna eragin zuten gertakizun historikoak zeinahi izanda ere-, demokraziaren euskarri gisa. Estereotipo sexistak

eragiten dituzten errituak ezin dira onartu bizikidetzaren oinarri gisa emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aldarrikatzen duen gizarte batean.

Tokiko botere publikoek nahiz gainerako euskal administrazioek, bakoitzak bere eskumenesparruan, ezin dute ezikusiarrena egin gizartean ematen diren aurrerakuntzen aurrean, ezta gizartea bizitzen ari den eta Zuzenbideak bultzatu nahi duen berrikuntza eta eraldaketa sakonaren aurrean ere. Hori dela eta, beharrezkoa da administrazioak bere babesik ez ematea, ez esplizituki, ez inplizituki, emakume eta gizonentzako berdintasunezkoak ez diren Euskadiko jaiak. Aitzitik, bereziki garrantzitsua da **erakunde publiko guztiek aktiboki eta modu erabakigarrian esku hartzea** Euskadi osoan emakume eta gizonentzat **berdintasunezkoak diren jaien sustapenean**.

Horrenbestez, euskal administrazio publikoek gomendatzen diegu **ez dezatela ahalbidetu** berdintasunezkoak ez diren jaiak antolatzea **eta ez dezatela horiek antolatzen lagundu**; emakumeek jaietan berdintasunez parte hartzea ahalbidetzeko **ekintza positiboak susta ditzatela**; jaiak herritar guztien ondare direla ziurtatzeko baliabideak jar ditzatela; eta **emakumeen historia berreskuratzeko** eta tradizioak emakume eta gizonen arteko berdintasunezko ikuspegiari oinarrituz zabaltzen **aktiboki lan egin dezatela**, baita **sentsibilizazio sozialeko kanpainak** sustatzea ere eta, hezkuntzaren arloan, berdintasunari dagokionez, jaietan emakumeen berdintasunezko tradizioak eta partehartzea bultzatzea.





GARDENTASUNA ETA AGIRI PUBLIKOAK ESKURATZEKO ESKUBIDEA. BEREZIKI, INGURUMEN INFORMAZIOA ESKURATZEA

Herritar askok Gizartearen gardentasuna eta zabaltze maila altuagoa eskatzen dute. Horri esker, gobernuek dokumentu eta artxibo publikoen gainean duten kontrolari buruzko eztabaida pizten ari da, baita horien opakotasuna eta sekretutasuna murrizteko beharrari buruz ere. Zabaltze hori gure garaiarekiko egokiagoa den interpretazio baten ondoriozkoa da, egokiagoa baita adierazpen eta informazio askatasuneko garairako eta pertsonen administrazioekin lotutako informazioa eskuratzeko eskubidea onartzen den garairako.

Informazio hori lortzeko eskubidea bermatzea **administrazio ona lortzeko eskubidearen ondoriozko exijentzia bat da**. Aldi berean, informazio publikoa herritarren ondarearen parte da, gai publikoetan parte hartzeko eskubide politikoez baliatzearen zerbitzura egon behar duenarena, hain zuzen.

Azken finean, printzipio horien aldeko demokrazia aktiboa herritarrekiko hurbilagokoa da, onuragarria da partehartze prozesuetarako, kontrol politiko eta instituzional handiagoa ahalbidetzen du eta zerbitzu publikoak eraginkortasunak ez izatea edo iruzurra eta antzeko gaitzak ekiditen ditu. Hala ere, segurtasun nazionala, pertsonen intimitatearen babesa edo delituen prebentzioa eta ikerketa direla eta, salbuespenak egon daitezke.

Gomendio honen xedea da euskal administrazio publikoei **gardentasun printzipioa eta informazio publikoa eskuratu ahal izatearen printzipioa betetzeari** buruzko hausnarketa bat helaraztea, bereziki, ingurumeneko informazioari dagokionean.

ZABORRAREN TASA KOB RATZEA, NAHIZ ETA GIPUZKOAKO ZENBAIT UDALERRITAN ZERBITZUA MODU ERAGINKORREAN EMAN EZ

Azken urteotan toki erakundeak ahalegin handia ari dira egiten herrigunetik kanpo ere zaborbilketa eta antzeko beste udal zerbitzu batzuk eskaintzeko. Ekimen horrekin batera, herritarrei ordainagiriak pasatzen zaizkie, baina, batzuetan, ez da kontuan hartzen tasa ordaintzeko eskatzen zaien pertsonen zerbitzua benetan ematen zaien ala ez. Arazo horrek udalerrri askotxoren baserri aldeei eragiten zien. Auzo horietan bizi diren pertsonen, alegia, herriguneeetatik urrun bizi direnek, behin baino gehiagotan adierazi dute eremu horietan ez dagoela ez edukiontzirik, ez zaborra biltzeko punturik ere beren etxetik hurbil, edukiontzia jar ditzatela nahi duten arren. Hau da, **benetan eskaintzen ez dieten** eta eskuragarri jartzen ez dieten **zerbitzu batengatik kobratzen dietela salatzen dute**.

Sarritan, tasa hori arautzen duten udal ordenantzek **tarifa murrizturen** bat barne hartzen dute, bilketa guneen batez besteko distantziaren arabera. Baina gutxi dira tasa ordaintzetik salbuesten duen gutxieneko distantzia bat (500 m, 400 m) ezartzen dutenak. Hori dela eta, gure ustez, komenigarria izango litzateke udal ordenantzek **arrazoizko distantzia zehatz** bat ezar dezatela, puntu horretatik aurrera dauden eraikinak zabortasa ordaintzetik salbuesita egon daitezke. Gainera, zerbitzua eskaintzen ez baldin bada, tokiko erakundeek bajan eman beharko litzukete tasa horretako erroldan eremu horietan dauden eraikinak, baldin eta distantzia handiak badaude eraikinen eta bilketa guneen artean.



INKOMUNIKATUTAKO ATXILOKETAREN EREMUKO BERME SISTEMARI BURUZKO AZTERLANA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Arartekoak hainbat kexa jaso ditu eta oraindik ere jasotzen ditu inkomunikazio araubidea ezarri zitzaizen atxilotuei **ustez tratu txarrak emateaz** eta haiek **torturatzeaz**. Horiek denak deusezta zitezela eskatu genuen torturaz eta tratu txarrez 2004ko abenduan egin genuen Adierazpenean. Sei urte igaro eta gero, sakon aztertu nahi izan dugu horien bilakaera, eta, horretarako, txosten zehatz bat egin dugu. Txostenak oinarritzko hiru erreferentzia ditu abiapuntu: prebenitzeko eta giza eskubideak babesteko nazioarteko erakundeek denbora horretan Espainiari egin dizkieten oharra; azken urteotan atxiloaldi inkomunikatuen lagin esanguratsuak aztertu dituzten ikerketa enpirikoetan ateratako ondorioak; eta, bukatzeko, Konstituzio Auzitegiak eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak azken urteotan gai horren gainean emandako epaiak. Guztiak batera aztertuta, erakunde honek egiaztatu du hobetzeko tartea dagoela honako alderdi hauetan: inkomunikatutako atxilotuaren eskubideak epaileak kontrolatzea, abokatuaren laguntza, auzitegiko medikuak txostenak egitea edo arrazoi horregatik egiten diren salaketak ikertzea. Horiek denak arretaz aztertu ditugu eta berariazko **zenbait neurri** proposatu ditugu, gardentasunaren bitartez, **berme-sistemak duen prebentziozko eraginkortasuna gehitzeko**.



Alderdirik garrantzitsuenak puntu hauetan laburtu ditugu:

- Atxiloaldiaren **ikus-entzunezko grabaketak sistematikoa izan behar du** eta bere baitan hartu behar ditu poliziaren bulego eta atxilotze-toki guztiak, bai atxilotua lekuz aldatzeko ibilgailuak ere. Abokatu defentsariak eta giza eskubideak bermatzeko erakundeek grabaketak ikusteko aukera izan behar dute, eta grabaketak instantzia independenteek gorde behar dituzte, sor litezkeen erantzukizunak preskribatzeko epea amaitu arte.
- Nahiz eta inkomunikatutako atxilotuari laguntzeko abokatua ofizioz izendatu, abokatuak atxiloaldiaren hasieratik bertatik izan behar du atxilotuarekin hitz egiteko aukera, eta atxilotuari **ez** diote **galdeketa**rik egin behar beraren **abokatua han ez badago**.
- Medikuen **azterketei dagokienez, isilpekoak** izango direla ziurtatu behar da, auzitegiko medikuarekin batera atxilotuak izendaturiko beste mediku bat egotea baimendu behar da, eta inkomunikatutako atxilotuari emandako tratuaz egiten diren txostenak nahitaez bete beharreko protokolo baten arabera egin behar dira, behar bezala gaitutako profesionalak ikuskatu behar dituzte eta nazioarteko estandarretara moldatu behar dute.
- Azkenik, gure azterlanean, **poliziaren jardueraprotokoloekin zerikusia duten neurri batzuk** proposatu dira. Neurriak atxilotuarenganako tratuarekin eta haren familiarekin dute lotura.

HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOA

Adingabeen egoeraren inguruko kezka eta interesa Arartekoaren jardunaren alderdietako bat da betiere, eta, batik batik, egoera bereziki zaugarrian dauden pertsonenaren ingurukoa. Are gehiago, 2010aren hasieran, hori onartzea eta Arartekoak ume eta nerabeen errealitate eta eskubideekin lotuta egiten duen lana sistematizatu eta proiektatuko duen Bulegoa bat eratzea erabaki zen.

Zerbitzuan adin txikikoen eskubideak hobeto defendatzeko egin diren aldaketa batzuez gain, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak datozen urteetan ondorengo esku-hartze larro hauen inguruan zenbait jarduera egiteko asmoa dauka:

1) LEHENTASUNEZKO ARRETA EGOERA BEREZIKI ZAUGARRIAN DAUDEN HERRITARRENTZAT.

Egoera zaugarrian dauden ume eta nerabeen arretara bideratutako proposamenetan aurrerapausoak emateko, nahitaezkoa da horien errealitatea hobeto ezagutzea. Bisitak egitea, profesionalekin hitz egitea, elkarrizketak eta bilerak egitea erakunde sozialekin eta herri administrazioen arduradunekin, informazioeskaerak, ikerketabekak, behatokiek egindako dokumentuak irakurtzea eta haur eta nerabeen arretarako errekurtsoak dira adin txikiko pertsonen errealitatea ezagutzeko informazio erabilgarria lortzeko tresnak.

2) ADIN TXIKIKO PERTSONEK PARTE HARTZEKO ETA BEREN AHOTSA ENTZUNARAZTEKO AUKERAK SUSTATZEA.

Umeentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa da haiekin batera lan egitea. Haien iritziak eta perspektibak ikustea eta partehartze, kontsulta eta aholkularitza bideak eskaintzea.

Ildo horretan aurrera eraman den ekimen garrantzitsuena Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua da. 2010eko ekainean eratu zen 15 urteko dozena bat neskamutilekin. Kontseilu horretan, nerabeei zuzenean entzuten zaie, beren arazoak eta kezkek plazaratzen dituzte eta eskuratutako informazioa administrazioa eta gizartera zuzendutako proposamenak lantzeko erabiltzeko konpromisoa hartzen da ume eta gazteen aongizatea, segurtasuna eta eskubideak (beren erantzukizunak eta betebeharrak ahaztu gabe) egunez egun hazten joan daitezzen.

Ildo horretatik jarraituz, Arartekoaren webgunean 8 eta 11 urte bitarteko neskamutilentzako espazio berezi bat sartu da. Baina adingabeen partehartzea ez da hor bukatzen; izan ere, helburua, ororen gainetik, egiten diren laneko prozesu guztietan haien begirada kontuan hartzea da.



Hori guztia, adin txikiko pertsonak edo horiekin lotuta aurkezten diren kexa eta eskaerei dagokien arreta eskainiz eta jarduera publiko ustez desegoki edo irregularren inguruan ikerketalanak eginez, horixe baita Arartekoaren erakundearen lehentasunezko zereginetako bat.

IN UHARTEA



3) HAURREN ESKUBIDEEN KULTURA HEDATZEA.

Helburua haurren eskubideen inguruko sentsibilizazioa lortzea, informazioa helaraztea eta hausnarketa bultzatzea da, bai adin nagusiko pertsonen artean, bai haurrekin zuzenean lan egiten duten profesionalen artean, baita ume eta nerabeen artean ere. Material didaktiko batzuk ezagunak dira dagoeneko (Haurren Eskubideei buruzko paper zorroak nahiz ziberbullyingari buruzko CDa eta Leihoa -Internetez gozatu sarean erori gabe- CDak). Azken urteotan egia bihurtu dira bai eskolako lanen lehiaketa, bai azaroaren 20aren presentzia, Nazio Batuen Asanbladak 1989an Haurren Eskubideen Ituna onetsi zuen egunaren urteurrenarena, alegia.

Hala eta guztiz ere, ekimen horiek eta beste batzuk egunero egunero beharrezkoak dira adin txikiko eskubideen kultura mantendu, sustatu eta bultzatzeko.

4) UME ETA NERABEEKIN LAN EGITEN DUTEN GIZARTE ERAGILE, ELKARTE, ZERBITZU ETA ERAKUNDEEKIN BATERA LANKIDETZAN ARITZEA SUSTATZEA.

Sareko lana, lan kolektiboa eta elkarlana ezinbestekoak dira gero eta konplexu eta espezializatuagoa den gizarte honetan. Hori, gutxienez, gure praktikaren ezaugarri diren oinarrietako bat izatea nahi dugu. Ondorioz, herri administrazioekin eta harekin konprometitutako erakundeekin hainbat topaketa, truke eta lanarlu egon dira eta egongo dira, baita Herriaren Defentsarako beste erakunde batzuekin, unibertsitateekin eta bestelako ballabideekin ere, haurren errealitatearen inguruko ezagutza kudeatzeko. Nahiz Haur eta Nerabeentzako Bulegoak zuzendutako proposamenen arabera, nahiz egindako lankidetzak eskaerei erantzunez; izan ere, garrantzitsuena ez da nork hartzen duen aurrea, baizik eta zer eraikitzen dugun elkarrekin.

ARGITALPENAK

- **Eusko Legebiltzararentzako Txostena**, Ararteko erakundeak aurreko urtean gauzatu duen lana jasotzen duena.
- **EAEko erakundeen jardura nerabeen droga kontsumoaren arloan** txosten berezia.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko gizarte zerbitzuen egoera** txosten berezia.



Arantxa Quiroga eta Iñigo Lamarca

- **Gizabanakoari eskubideak etetea terrorismo kasuetan: arreta berezia atxiloaldi inkomunikatuari.** Arartekoak sustaturiko eta Izaskun Orbegozo, Ana Isabel Pérez eta Laura Pegok egindako ikerlana da. Ikerlan horretan praktika eztabaidatu bat aztertu da, atxiloaldi inkomunikatua, alegia. Horri dagokionez, Legeak, aparteko kasu batzuetan, baimendu egiten du askatasunik gabeko pertsonak atxiloaldian dituzten eskubideetako batzuk murriztea. Atxiloaldi inkomunikatua



*Gizaki guztiak libre eta eskubide
berdin jaiotzen dira*

*Todos los seres humanos
nacen libres e iguales.*

Hamabi kausa hilez hil

beste arrazoi batengatik ere eztabaidagarria da, hau da, opakotasun-eremuak sortzea eragin dezakeelako eta opakotasun-eremu horiek objektiboki zaildu egiten dutelako tortura eta tratu txarrak prebenitzeko tresna eraginkorrek ezartzea eta, salaketak daudenean, horiek ikertzea. Nazioarteko erakunde asko (Tortura Prebenitzeko Batzordea, Europako Kontseiluarena; Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordea eta Amnistia Internazional) kezkatuta agertu dira eta beren iritzia agertu dute. Arartekoak ere kezka hori plazaratu du. Horren adierazgarri da 2004ko abenduaren 21ean Torturari buruz egin zuen Adierazpena, baita atxiloaldi inkomunikatuaren esparuko bermeen sistemari buruz egin zuen Azterlana ere.

- Arartekoa, giza eskubideekiko errespetuaren kultura sustatzeko betebeharraren barruan, "**hamabi kausa hilez hil**" izeneko ekimen bat abian jarri zuen. Ekimen hori Arartekoak Gasteizen daukan egoitzaren aurrealdean hilabetez kartel bat jartzean datza. Bertan, giza eskubideekin lotutako kausa baten adierazgarri den lelo eta irudi grafiko bat jartzen da ikusgai.

- Abenduaren 10ean, **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna** zela eta, Arartekoak kartel bat eta egutegi batzuk prestatu zituen eta EAEko ikastetxe guztietara bidali ziren. Helburua hausnarketa bultzatzea eta egoerarik txarrean dauden pertsonen beharrekiko sentsibilizazio handiagoa lortzea zen, giza eskubideen defentsa eta babesean esku hartzen duen gizarte bat lortzeko aurrerapausoak eman ahal izateko.



JARDUNALDIAK ETA EKITALDIAK

Udako ikastaroak

EHUrekin elkarlanean, Arartekoak uztaillean **“Lana, familia eta norberaren bizitza bateragarri egiten laguntzeko politika publikoak berriz aztertzeko bidean”** izenburuko jardunaldia antolatu zuen Donostian.

Azken urteotan, agenda politiko eta publikoen parte dira lana, familia eta norberaren bizitza bateratzearekin lotutako gaiak, bizitzaren alderdi desberdinak bateratzea sustatzeko ekintza positiboak nahiz horrekin lotutako politika publikoak. Arartekoaren ustez, beharrezkoa da ekintza horiek gurasoek beren semealaben heziketa eta hezkuntzan gehiago esku hartzea lortzera bideratzea, baita bizitzaren alderdiak bateratzearen aldeko politika publikoak helterakoan zabaltzen diren perspektibak eta joerak analizatzea ere.

Era berean, egungo ikuspegia lana eta adineko pertsonak nahiz menpekotasun handiko pertsonak zaintzearekin lotutako politiken sustapenarekin osatzen saiatzen da. Gaur egun dagoeneko ikus daitezkeen egoerak aurrekusi behar dira, gero eta gehiago baitira semealaba eta arbasoen arreta eta zaintza dibertsifikatu behar duten pertsonak -emakumezkoak, batik bat-.



Herriaren defentsarien koordinazio jardunaldiak

“Krisi ekonomikoak pertsonen eskubideen erabilpenean duen eragina” izenburu orokorrarekin, irailean Logroñon **Herriaren Defentsarien XXV. Koordinazio Jardunaldiak** egin ziren.

Aurten, Jardunaldien helburua krisiak pertsonen eskubideen erabilpenean izan duen eraginaren analisia izan da nagusiki. Beraz, erakunde publikoek, egungo ziklo ekonomikoa dela eta, beren politiketan aldaketak egin dituzten eta aldaketa horiek herritarren eskubideen babesean eragin negatiboak izan dituzten ikustea izan da helburua.

Iñigo Lamarca eta Arartekoaren ordezkartzako kide batzuek hainbat gai buruz antolatu zituzten bilera eta mahaiinguruetan esku hartu zuten. Horiek honako gai hauen inguruak izan ziren, besteak beste: etika ekonomikoa eta baloreena, familientzako babes neurriak, etxebizitzaren arloak bereziki, eta krisiak Herriaren Defentsarako erakundeetan izan duen eragina.

Era berean, Jardunaldietan **Krisi ekonomikoarekin lotuta zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen eskubideak** Herritarren Eskubideen Foroa ere egin zen.



■ Estrasburgon **Umeen Defentsarien Sare Europarraren Urteroko Konferentziaren (ENOC)** 14. bilera egin zen eta arartekoa bertan izan zen. ENOC sarea Europako umeen defentsariak osatzen dute. Bere helburua **Umeen eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena** aplikatzea bultzatzea da, baita adin txikiko pertsonen eskubideen alde lan egiten duten kolektiboek babesa ematea eta umeentzako ombudsman bulegoak eratzea sustatzea ere.

■ Arartekoa **Gizakiaren Bakerako Eskubideari buruzko Nazioarteko Kongresuan** esku hartu zuen, Santiago de Compostelan. Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubiderako Elkarte Espainiarrak antolatu zuen Elizen Munduko Kontseilua eta Bakerako Ikasketen Erakundearekin elkarlanean, eta haren helburu nagusia Bakerako Giza Eskubidearen Adierazpen Unibertsala onartzea zen.

■ Balore demokratikoak sustatu eta defendatzen dituen **Valsain Fundazioak** Mintegi bat antolatu zuen Gasteizen, Europako gizarteetan baloreen krisi komunari eta haren ondorioei heltzeko, baita euskal gizartearen baitan, eta gazteen artean bereziki, fenomeno horien inguruko pertzepzioa zein izango litzatekeen eztabaidatzeko ere. Partaideen artean, Iñigo Lamarca **"Balore demokratikoen papera gazteen esparru espezifikoa"** izenburuko hitzaldia eman zuen.

■ Iñigo Lamarca, arartekoa, eta Julia Hernándezek, arartekoaren ondokoak, Kolonbian egin zen **Ombudsmango Federazio Iberoamerikarraren XV. Kongresua eta Urteko Asanbladan (FIO)** esku hartu zuten. Horrez gain, arartekoaren ondokoak **FIOren Emakumeen Sarearen XI. Bileran** parte hartu zuten.



Arartekoa IOIren bileran

"Europa: gizarte irekia?" Ielopen, Europa osoko defentsariak, IOI (International Ombudsman Institute) erakundeko kideak, Bartzelonan bildu ziren kontinentean bizi diren pertsona immigratuen eskubideekin lotuta gauzatzen duten lanari buruz eztabaidatzeko. Iñigo Lamarca arartekoa Belgika eta Norvegiako ombudsmanekin batera esku hartu zuen "Gizarte-esklusioa, krisiaren eragina, berriz biltzea, herrialdera itzultzea, emakumeen trafikoa" gaiari buruzko mahai-inguru batean.



Valsain Fundazioak antolatutako mintegia

■ Arartekoa 2010ean zenbait **lankidetzak hitzarmen** sinatu zituen. Andaluziako herriaren defentsariarekin, berriz, "Defentsa bulegoak sarean" programa garatzeko konpromisoa hartu zuen. Bere helburua bi erakundeen eraginkortasuna hobetzea da beren zerbitzuak eskaintzari dagokionez, baita IKTak ezarri eta garatzea ere, herritarren erabilerraztasun handiagoa ahalbidetzeko. Horrez gain, bi defentsa erakundeek Asturiasko Printzerriko prokuradore orokorrearekin laneko metodoak, tresna teknologikoak eta esperientziak partekatzea erabaki dute. Gainera, arartekoa hitzarmen bat sinatu zuen Buenos Aires hiriko herriaren defentsariarekin, ume eta nerabeen artean IKTen erabilpen segurua sustatzeko.



Iñigo Lamarca Andaluziako herriaren defendatzailearekin

■ **Caja Castellón Fundazioaren** kultura programazioaren barruan, arartekoak topaketa bat gauzatu zuen gazteekin. Balore demokratikoei eta giza eskubideei buruz hitz egin zuen gaia krisialdiarekin lotuz.



■ **Erizaintza Eskolaren XXI. Jardunaldien** barruan, arartekoak "Arreta soziosanitarioa eragina bereziki jasaten duten herritar taldeen kasuan" izenburuko konferentzia eman zuen. Horrez gain, Birgaiketa Psikosozialaren Euskal Elkarteak eta Euskadiko txirotasunaren eta gizarteesklusioaren kontrako borrokaren Sare Europarrak Bilbon **Topaketa bat antolatu zuten EAEko erakunde sozial eta sanitarioen artean**. Bertan, Iñigo Lamarca "Osasun Mentala eta Gizarteesklusioa" gaiari buruz mintzatu zen.



Dibertsitate Afektibo eta Sexualaren Hezkuntzari buruzko I. Jardunaldia

■ Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Gurasoen Elkarteak (GLBTGE) Elchen (Alacant) IX. Jardunaldi estatalak antolatu zituen. Ekitaldi hartan, arartekoak "Ezkontza homosexuala eta adopzioa. Ikuspuntu legala" izenburuko hitzaldia eman zuen. Horrez gain, Dibertsitate Afektibo eta Sexualaren Hezkuntzari buruzko I. Jardunaldian esku hartu zuen. Jardunaldiak antolatu zituen Kolektiboarekin eta elkarlanean. Iñigo Lamarca dibertsitate sexuala, genero identitatea eta bestelako dibertsitateen alde egin duen lana ere aintzatetsia izan zen Baezan (Jaén), eta han, Proiekzio Sozialaren esparruko **BaezaDiversa 2010** saria jaso zuen.

■ Donostian **Herritar Digitalaren Nazioarteko I. Kongresua** egin zen. Foro hartan, hainbat adituk Internetekin lotuta sortzen ari diren erronkei buruz eztabaidatu eta hausnartzeko aukera izan zuten. Iñigo Lamarca amaiera eman zien jardunaldi horiei. Jardunaldien gai nagusia "Ziberbullyinga eta Interneteko beste erronka batzuk adingabeentzat eskolan eta familian".

■ Umeen Kontrako Tratu Txarrak Prebenitzeko Elkartearen Federazioak (FAPMI) **Tratu Txarrak jasaten dituzten Umeen X. Estatu Kongresua** antolatu zuen Sevillan. Bertan, arartekoak "Jardunbide onak babes sistema: Adingabeen beharren eta sistemaren baliabideen artean" izenburuko mahaiinguruan moderatzaile lanak gauzatu zituen. FAPMI irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Bertan, adingabeen eskubideen defentsarekin sentsibilizatuta dauden pertsona eta elkarteek esku hartzen dute. Beren ahaleginak bateratuz, ume eta nerabeak ongi tratatzea sustatzen dute.

■ SOS Racismok Donostian **Gipuzkoa solidarioa: Gipuzkoa milaka aurpegi** ekitaldia antolatu zuen. Horren bidez, etorkinei esker ona agertu nahi zitzaizen egungo euskal gizartea eratzten modu erabakigarrian parte hartu dutelako. Esker on horren sinbolo gisa, Gipuzkoako gizarteko hainbat sektoretako ordezkari garrantzitsuek diploma bat entregatu zieten Gipuzkoan bizi diren eta bertan lan egiten duten etorkinei. Arartekoak Salimi aintzatespensinboloa entregatu zion, errefuxiatu estatutua daukan senegaldar bati, alegia.

■ Arartekoak Bilbon **CEAR-Euskadik** antolatutako Generoarrazoiengatik Jazarpenari eta Asiloeskubideari buruzko I. Biltzarrari hasiera eman zion ekitaldian esku hartu zuen. Generoarrazoiengatik jazarpena pairatzen duten pertsonak honelakoak izaten dira: gizon homosexualak, Afrikako eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan familia barruan indarkeria jasan duten emakumeak, eta sexuorganoen mozketatik eta behartutako ezkontzatik ihesi datozen edo emakumeen salerosketaren biktima izan diren emakume nigeriarrak.



CEAR-Euskadik antolatutako jardunaldia



Hitzaldia Sagrado Corazón ikastetxean

■ Urte osoan zehar, arartekoak **hainbat topaketa egin ditu gazteekin** ikastetxe batzuetan antolatu diren hitzaldien bidez; esate baterako, Donostiako Santo Tomas Lizeoan eta Gasteizko Sagrado Corazón ikastetxean. Hainbat gairi heldu die, honako hauei, besteak beste: gazteen baloreak eta kontrabaloreak, teknologia berrien erabilpena, desberdintasun jakin batzuen aurreko tolerantzia maila, etab. EHUko Esperientzia Geletako (55 urtetik gorakoentzako titulazio ez ofiziala) ikasle batzuekin ere topaketa bat egin zuen.

■ Arartekoak, futbolari, ikasle, kulturaren arloko ordezkari eta herritar askorekin batera, Eibarren **GOL 1 hezkuntzaren alde** kanpaina esku hartu zuen. **Hezkuntzaren aldeko Mundukanpainaren** barruko ekimen hori munduko 100 herrialde baino gehiagotan egin zen.

■ **Forum Azkoitiak** antolatuta, topaketa eta hausnarketarako espazio ireki eta ibiltari batean, laneko eta familiako bizitza bateratzeari buruzko Jardunaldiak egin ziren, eta, han, arartekoak *“Bateragarritasuna lor al daiteke gure gizarte eremuan?”* izenburuko hitzaldia eskaini zuen.

■ Arartekoaren ondokoak, Julia Hernándezek, “Genero indarkeria, XXI. mendeko indarkeria” izenburuko hitzaldia eskaini zuen Minuto Unibertitatean (Minuto de Dios unibertitate bazkuna), Bogotan. Horrez gain, Puerto Rico ere **Umeen eta Nerabeen Eskubideei buruzko Munduko IV. Kongresuan** esku hartu zuen.

■ Julia Hernándezek “Adingabearen eskubideak eta zaintza partekatua” jardunaldian parte hartu zuen. Jardunaldia Euskadiko Guraso Bananduen Federazioak (**Kidetza**) antolatu zuen.

■ **Alkoholiko Anonimoak** Fundazioak bere 75. urteurrena ospatu zuen Donostian antolatu zuen ekitaldi batekin, eta arartekoaren ondokoa han izan zen. Horrez gain, Bilbon ere esku hartu zuen “ONCEren Eguna 2010” egunari hasiera eman zion ekitaldian. Bertan, pertsona itsuen erakunde horretan ibilbide luzea duten langileei omenaldia egin zieten.

■ Julia Hernández Arartekoaren Gasteizko egoitzan Marokoko ordezkariak batekin batzartu zuen, eta ordezkariak Immigrazio ministroa izan zuen buru.



Julia Hernández Marokoko ordezkariekin

ESKOLA-İKASLEEN BISITAK

Arartekoaren erakundea aurten ere Gasteizko Udalaren Hezkuntza Atalarekin lankidetzan aritu da **Gasteitzo Albistegia** lantzeko. Arabako hiriburuko hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzen dute eta erakundearen jarduerarekin lotutako datuak eta informazioa jasotzen dute irrati edo telebistako saio bat edo egunkari bat prestatzeko.

GURE ESKUBIDEAK ESKOLA-LANEN V. LEHIAKETAKO SARIEN BANAKETA

Iñigo Lamarca arartekoak **“Gure eskubideak”** eskolalanen V. Lehiaketaren sariak banatu zituen erakundeak Gasteizen daukan egoitzan.

UNICEF, Save The Children, Koldo Mitxelena institutua, Arartekoaren Ume eta Nerabeen Kontseilua eta Arartekoaren bulegoko ordezkariak osatutako Batzordeak lehiaketaren edizio berrian aurkeztu ziren materialak eta programak aztertu zituen eta Lehen Hezkuntzako saria **Bilboko Zamakola EP** ikastetxeari ematea erabaki zuen “Eskolan uneen eskubideekiko konpromisoa hartzen” lanagatik.

Gainera, lehiaketan esku hartu zuten ikastetxe guztiek ziurtagiri bana jaso zuten.



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independientea** da.
- **Dohain eskaintzen** den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eraman denean.

NOLA EGİN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoa azaltzen duen idaztia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina, San Vicente, 8 - 11. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasun hiribidea, 26 - 4.
20004 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88

Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu

